II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

2023rako egutegi fiskalaren onarpena

2023rako Egutegi Fiskala eta udal honek kudeatzen dituen aldizkako zergak ordaintzeko epea onartzeko beharra ikusirik, honako hau ebazten dut:

Lehenengoa. Taldeko eta aldizkako jakinarazpenen egutegi fiskala eta borondatezko ordainketa-aldia onartzea, honela:

ZERGA	BORONDATEZKO EPEA	EXEKUZIO EPEA
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zerga (TMIZ)	2023ko martxoaren 1etik maiatzaren 1era (biak barne)	2023ko maiatzaren 2tik aurrera
Landa- eta hiri-ondasun higiezinen gaineko zerga (OHZ)	2023ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (biak barne)	2023ko irailaren 1etik aurrera
Izaera Bereziko Ondasun Higiezinen gaineko Zerga	*Udalak ordainketa zatikatua baimentzen duen kasuetan, lehenengo ordainketa uztailaren 31n egingo da, eta bigarren ordainketa azaroaren 30ean egingo da	Abuztuaren 1ean eta abenduaren 1ean, hurrenez hurren
Hiri hondakin solidoak jasotzeko zerbitzuaren tasa (Zaborrak)	2023ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (biak barne)	2023ko irailaren 1etik aurrera
Auto-taxi lizentziaren tasa	2023ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (biak barne)	2023ko irailaren 1etik aurrera
"Urkabustaiz Musika Eskola Publikoan" emandako jardueren tasak	Hileko kuotak	Hurrengo hilabeteko lehenengo eguna
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	2023ko azaroaren 1etik abenduaren 30ra arte (biak barne)	2023ko abenduaren 31tik aurrera

Alkatetzak ahalmena du egutegi hau aldatzeko, baldin eta, behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoengatik, adierazitako egunetan aipatutako baliabide ekonomikoak kudeatzea ezinezkoa bada, eta interesdunei behar besteko aurrerapenaz horren berri emango die.

Aurreko puntuan adierazitako sarrera-epeetan egin daitezkeen aldaketak Alkatetzak onartuko ditu eta egutegi fiskal hau bezala argitaratuko dira: ALHAOn, eta udaleko iragarki-taulan.

Bigarrena. Errolda fiskalak, ordaindu beharreko kuotak eta horiek zehazten dituzten zerga-elementuak barne, jendaurrean jarriko dira udal-bulegoetan, ALHAOn iragarri ondoren, jendaurrean jartzeko epean egokitzat jotzen diren alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena. Diru-sarrerak egiteko bideak eta ordainketetarako lekuak:

A) Banku-entitateetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ordainketa helbideratuta dutenek ez dute aldaketarik egin beharrik izango, helbideratutako banku-kontua mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa gauzatzeaz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

B) Banku-entitateetan helbideratu gabeko ordainketak, ordainketa-kartaren bidez:

— Ordainketa-agirian ageri diren erakunde laguntzaileetan.

— Era berean, “nire ordainketa” sistemaren bidez ere egin ahal izango da, udal webguneko izapideen atalean.

Izarran, 2023ko urtarrilaren 20an

Alkate-presidentea
XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2023.02.03 06:17:53 Z